2.1. Mosaikoei dagokienez, interesgarria da zoru bat estaltzeko lauzek izan ditzaketen forma posibleen gaia; bizitza errealeko adibideak bila ditzakegu (ezti-abaraskak, sukaldeak, etab.). Ziurrenik, proposatutako baldosadura ugari erregularrak izango dira, hau da, poligono erregular baten formako lauzekin eraikitakoak; lauza guztiak neurri berekoak izango dira, eta aldea aldearekin erantsita egongo dira. Aurreko jardueran alde berdineko poligono erregularren ereduak eraiki badira, zenbait baldosadura sor daitezke zoru hipotetiko baterako. Kasu erregularra kontsideratzen bada, ziur hiru modu posibleak aurkituko ditugula.

2.2. Esperimentua egin ondoren, ziurrenik jarduera egin duten pertsonek, hala nola, ikasleek, dagoeneko jakingo dute ezin dutela planoko mosaikorik eraiki pentagonoekin soilik. Interesgarria litzateke hori zergatik gertatzen den aztertzea (ikus irudia), eta gertakari hori beste poligono batzuentzat orokortzea. Beharrezkoa bada, heptagonoarekin zer gertatuko litzatekeen azter daiteke.

2.1. Una cuestión interesante en relación a los mosaicos es la de las posibles formas que pueden tener las losetas para embaldosar un suelo, pudiéndose buscar ejemplos en la vida real (panales de miel, cocinas, etc.). Probablemente, muchos de los embaldosados planteados sean regulares, es decir, construidos con losetas con la forma de un mismo polígono regular, todas ellas del mismo tamaño y pegadas lado con lado. Si se han construido modelos de polígonos regulares de lados iguales en la anterior actividad, se pueden intentar realizar diferentes embaldosados para un hipotético suelo. Si se considera el caso regular seguro que se obtendrán los 3 posibles.

2.2. Tras el intento experimental, es posible que las personas que estén realizando la actividad, por ejemplo estudiantes, ya sean conscientes de que no se pueden construir mosaicos del plano únicamente con pentágonos. Es interesante que busquen una razón para ello (véase la imagen anexa), y que generalicen este hecho a otros polígonos, preguntando, si es necesario, que ocurriría con el heptágono.



Pentagonoekin ez

Con pentágonos, no

2.3. Hurrengo jarduera oso interesgarria da hezkuntzaren ikuspegitik; aurreko gertakari hori formalki frogatu behar dutelako.

Hau da frogapena: Posible balitz planoa estaltzea aldeko poligonoren batekin, orduan erpin bakoitzaren inguruan poligono horien kopuru bat egongo litzateke. Beraz, 360º poligonoaren barne-angeluarekin zatitzen badugu, lortu behar dugu, poligono horien kopurua hain zuzen ere, hau da,

$$k = 2n/(n - 2).$$

zenbaki osoa izan dadin, -k 3, 4 edo 6 balioak har ditzake soilik.

2.4. Aurreko frogapenak ez du esan nahi n = 3, 4 edo 6 aldeko poligonoekin baldosadurak erai-

2.3. La siguiente actividad, y muy interesante a nivel educativo, sería la búsqueda de una prueba formal de este hecho.

La prueba es la siguiente: Si fuese posible cubrir el plano con copias de algún polígono de n lados, entonces alrededor de cada vértice habrá un cierto número de k de éstos polígonos. Por lo que al dividir 360º entre el ángulo interno del polígono se debe de obtener k, el número de estos polígonos, es decir,

$$k = 2n/(n - 2).$$

Para que k sea un número entero, n sólo puede tomar los valores 3, 4 ó 6.

2.4. La demostración anterior no implica que puedan construirse embaldosados con polígonos de ki daitezkeenik, existitzekotan horiek soilik izan daitezkeela baizik. Hala eta guztiz ere, badakigu existitzen direla, 2.1. jardueran esplizituki eraiki ditugulako. Hortik abiatuta, logikako zeharkako gaitasuna lan dezakegu: baldintza beharrezkoa baldintza nahikoaren kontra.

3. jarduera (baldosadura uniformeak): Behin baldosadura edo mosaiko erregularrak azaldu ditugunean, normala da geure buruari poligono erregular bat erabili beharrean alde kopuru ezberdineko poligono erregularrak erabiliko bagenitu zer gertatuko litzatekeen galdetzea (neurri bereko aldeak izango dituztenak, lauzak ongi itsatsi ahal izateko). Hau burutu ahal izateko baldintzaren bat gehitu beharko dugu:

3.1. Baldosadura uniformeekin lan egin dezakegu: erpin baten inguruan poligono erregularren konfigurazio bera dutenak dira. Oraingoan ere, aurretik eraikitako poligonoekin baldosadura uniformeen adibide praktikoak eraiki ditzakegu.

3.2. Interes handiena duten ikasleek zortzi baldosadura uniforme existitzen direla frogatzen saia daitezke. Mosaiko erregularrekin erabilitako prozeduraren antzekoa jarraitzen da, baina ez da guztiz berdina.

Hasteko, pentsa dezakegu erpin baten inguruan poligono erregular dauzkagula. Zenbaki hori 6ren berdina edo txikiagoa izango da, triangelua delako barne-angelu txikiena duen poligono erregularra. Bistakoa denez, 1 edo 2 ere ez da izango. Bestalde, bere barne-angeluen batura hau izango da:

$$360^\circ = 180^\circ\,((n_1 - 2)/n_1 + \cdots + (n_k - 2)/n_k).$$

Eragiketak eginez, honakora honetara iritsiko gara:

$$(k - 2)/2 = 1/n_1 + \cdots + 1/n_k.$$

-ri balio posibleak emanez (3, 4, 5 eta 6) eta lan eginez, ekuazio horrentzat 17 emaitza oso bila ditzakegu. Emaitza horietako batzuk zenbait modutan birrordena daitezke, eta 21 konfigurazio posible ezberdin lortuko ditugu (ikus irudia). Planoko baldosadurak ez dira motibo guzti hauekin sortzen: horiek aztertuz gero, irudiko zortzi mosaiko uniformeak aurkituko ditugu (aurretik ezagutzen ditugun erregularrak kontuan hartu gabe).

n = 3, 4 ó 6 lados, sino que, en caso de existir, son las únicas posibles. Sin embargo, se sabe que sí existen ya que se han construido explícitamente en 2.1. Con esto, se pueden trabajar competencias transversales de lógica: condición necesaria contra condición suficiente.

Actividad 3 (Embaldosados uniformes): Una vez introducidos los embaldosados o mosaicos regulares, es natural preguntarse qué ocurre si se permite no sólo un polígono regular, sino combinaciones de polígonos regulares de diferente número de lados (con los lados del mismo tamaño para que peguen bien las losetas). Será necesario añadir alguna condición.

3.1. Se podría trabajar con embaldosados uniformes: son aquellos en los que alrededor de un vértice se tiene la misma configuración de polígonos regulares. De nuevo pueden intentarse construir ejemplos prácticos de embaldosados uniformes con los polígonos anteriormente construidos.

3.2. Para alumnos y alumnas con más interés, podría trabajarse la demostración de que existen 8 embaldosados uniformes. El procedimiento es similar al hecho para los mosaicos regulares pero no enteramente igual.

Para empezar puede suponerse que alrededor de un vértice se tienen k polígonos regulares. Este número ha de ser menor o igual que 6, ya que el polígono regular de menor ángulo interior es el triángulo. Obviamente, tampoco será 1 ni 2. Por otro lado la suma de sus ángulos internos será

$$360^\circ = 180^\circ\,((n_1 - 2)/n_1 + \cdots + (n_k - 2)/n_k).$$

Operando se llega a

$$(k - 2)/2 = 1/n_1 + \cdots + 1/n_k.$$

Haciendo variar k entre sus posibles valores (3, 4, 5 y 6) y con cierto trabajo, se pueden encontrar 17 soluciones enteras de esta ecuación. Algunas de estas soluciones pueden reordenarse de varias maneras, obteniendo 21 posibles configuraciones (véase imagen adjunta). No todos estos motivos producen embaldosados del plano: por inspección podemos llegar a los 8 mosaicos uniformes de la imagen (obviando los ya conocidos regulares).



21 konfigurazioak


Las 21 configuraciones

4. jarduera (Mosaikoak sortzea Escher-en modura): Ikus bezala baldosadura ikusgarriak eraiki daitezke koloretako poligonoekin. Halere, Escher-en mosaikoak, edo antzeko beste batzuk, askoz ere erakargarriagoak dira. Mosaiko hauek modu errazean eraiki ditzakegu. Baldosadura erregular batekin hasiko gara. Gure aukeraren eta mosaikoan sartu nahi ditugun simetrien arabera, tresna batzuk edo beste batzuk erabiliko ditugu. Horrela, desitxuratutako aldeak kopiatzen direnean, talde kristalografiko batzuk edo beste batzuk lortuko ditugu amaierako mosaikoko simetria gisa.

4.1. Gelan lan egiteko, Escher-en lanak edo antzekoak aurkez ditzakegu, mosaiko periodikoekin egindakoak. Horien bidez, oinarrizko gunearen kontzeptua azalduko dugu; translazioaren bidez mosaiko osoa lortzeko aukera ematen duen paralelepipedo bat alegia. Gune hori ez da bakarra, eta aukeratutako translazioen araberakoa izango da. Interesgarria litzateke gune hori aurrez ikusitako mosaiko batzuetan adieraztea.

4.2. Mosaiko erregular bat aukeratuko dugu, karratuz osatutakoa adibidez, eta horren simetria guztiak identifikatuko ditugu. Honako hemen izan daitezkeen batzuk:

- 90º-ko, 180º-ko eta 270º-ko biraketak erpinetan eta karratuen zentroan.
- 180º-ko biraketak ertzetako erdiko puntuetan zentratuak.

Actividad 4 (Construcción de mosaicos a la Escher): Evidentemente se pueden construir embaldosados muy vistosos con polígonos coloreados. Claro que los mosaicos de Escher, u otros similares, resultan mucho más atractivos. Se pueden construir mosaicos de este tipo de manera sencilla. Se empieza con un embaldosado regular. Dependiendo de la elección y de las simetrías que se espera que tenga el mosaico se podrán utilizar diferentes herramientas. Así, según cómo se copien los lados deformados, se obtendrán unos grupos cristalográficos u otros como simetrías del mosaico final.

4.1. Para trabajar en un aula, sería interesante presentar al alumnado algunos trabajos de Escher o similares con mosaicos periódicos. Con estos se puede introducir la noción de región fundamental, un paralelepípedo que permite obtener todo el mosaico por traslación. Esta región no es única, y depende de las traslaciones que se elijan. Puede ser interesante presentar esta región en algunos de los mosaicos anteriores.

4.2. Se escogerá un mosaico regular, por ejemplo por cuadrados, y se identificarán todas sus simetrías, que pueden ser algunas de las siguientes:

- Giros de 90, 180 y 270 grados en vértices y en el centro de las losetas.
- Giros de 180º centradas en los puntos medios de las aristas.

- Islapenak, ardatzak mosaikoko lerroen gainean eta lauzen erditik pasatzen diren zuzenetan jarriak.
- Begibistako translazioak.
- Lerratze-simetriak: hasteko, translazio bat egiten da, eta, ondoren, islapen bat, ardatza translazio-norabidearen perpendikularrean jarrita.

- Reflexiones con ejes sobre las líneas del mosaico y las rectas que pasan por el centro de las losetas.
- Las traslaciones obvias.
- Las simetrías con deslizamiento: primero se realiza una traslación y luego una reflexión con eje perpendicular a la dirección de traslación.

4.3. Simetria horietako batzuen bidez, planoa modu erakargarrian estaltzen duten lauzak lor ditzakegu. Oso erabilgarri izango dira karratuaren aldeak karratuaren aldeen gainera eramaten dituztenak.

4.3. Algunas de estas simetrías permitirán construir losetas que cubren el plano de manera más atractiva. Serán útiles aquellas que lleven lados del cuadrado sobre lados del cuadrado.

- Translazioa: nahikoa da alde bat aukeratzea, eta translazio baten bidez pareko aldean eranstea.

- Traslaciones: Basta seleccionar un lado y copiarlo en el lado de enfrente mediante una traslación.



- Erpin baten inguruko 90º-ko biraketa: alde bat biratzen da, beste alde batera igortzeko moduan.

- Giros de 90º alrededor de un vértice: Se rota un lado, de manera que se envíe sobre otro.



- Lerratze-islapena: islapenaren ardatzak “bi-koiztu” nahi dugun aldea gurutzatuko du, eta translazioak alde hori paralelo den beste alde batera eramango du.

- Reflexiones con deslizamiento: El eje de reflexión atraviesa el lado que se quiere “duplicar”, y la traslación lleva ese lado sobre otro paralelo.



- Alde baten erdiko puntuaren inguruko 180º-ko biraketa: mugimendu hauek ez dira horren interesgarriak.

- Giros de 180º alrededor del punto medio de un lado: Estos movimientos son algo menos interesantes.



Simetria bat baino gehiago konbinatuz gero, bateragarriak izatea komeni da. Adibidez, translazio bat eta biraketa bat konbinatzen baditugu, biraketa-zentroaren translazioa ere biraketa-zentrua izan behar da.

Azkenik, behin lauza eraiki dugunean, berau errepikatuz mugimendu zurrun berak erabiliko ditugu planoa estali arte.

Hona hemen pausoz pauso eginiko adibide bat. Lehenik, 90º-ko biraketa bat erabiliko dugu alde beltza kopiatzeko (ikus irudiaren ezkerraldeko goiko aldeko irudia). Ondoren, alde hori erreplikatuko dugu berriro islapen-lerratu baten bidez, irudiaren erdialdeko goiko aldeko irudian ikusten den bezala. Alde bakarra estaltzea besterik ez da geratzen. Alabaina, biraketa-zentroaren islapen-lerratuak ezarriko du azkeneko aldeak zer forma eduki behar duen. Emaitza ikusi ahal izango dugu 1. irudiaren behealdean.

Bigarren irudian, bi translazioren bidez eraikitako adibide bat ikus dezakegu. Ikus dezakezuenez, lauza ez da ixten, aukeratutako aldeak ez direlako erpinen gainean bukatzen. Hala ere, erraza da benetako mosaiko bat eraikitzea.



1. irudia. Mosaikoaren adibide bat
Figura 1. Un ejemplo de mosaico

Dagoeneko, jarduera gauzatzen ari diren ikasleak Escher-en erara eraikitako mosaikoak egiteko gai izango dira.

4.4. Triangeluz eta hexagonoz osatutako mosaikoetan zer mugimendu (mugimendu baliokideak dira)

Si se combinan varias simetrías, es conveniente que estas sean compatibles, por ejemplo, si se combina una traslación y un giro, el trasladado del centro de giro debería ser también un centro de giro.

Por último, una vez construida la loseta, se utilizan los mismos movimientos rígidos para replicarla hasta cubrir el plano.

Un ejemplo paso a paso. En primer lugar se usa un giro de 90º para replicar el lado negro (véase la figura superior izquierda de la imagen anexa). Después, se replica de nuevo este lado mediante una reflexión con deslizamiento como en la figura superior central de la imagen. Sólo resta cubrir un lado. Ahora bien, la imagen por la reflexión por deslizamiento del centro de giro también lo será. Esto fuerza la forma del último lado. Puede verse el resultado en la ilustración inferior de la figura 1.

Puede verse también en la figura 2 un ejemplo construido mediante dos traslaciones. Obsérvese que la loseta no se cierra, esto se debe a que los lados elegidos no terminan sobre los vértices. Aún así, es sencillo construir un verdadero mosaico.



2. irudia. Mosaikoaren beste adibide bat.
Figura 2. Otro ejemplo de mosaico.

Y en este momento los y las estudiantes que estén realizando la actividad ya estarían en condiciones para crear sus propios mosaicos a la Escher.

4.4 Podría plantearse ahora una investigación, qué movimientos se podrían hacer en el caso de los moegin ahal diren inguruko ikerketa proposa daiteke. Lauza bakarreko mosaikoak, poligono erregularra izan gabe, ere landu ditzakegu.

saicos por triángulos o hexágonos (los movimientos son análogos). Incluso, podría trabajarse con mosaicos de una sola loseta que no sea un polígono regular.

VI. Moebius-en banda ez da orientagarria

Paper-xafla luze bat hartzen badugu, eta bi muturrak itsasten baditugu irudian ikusten den eran, zilindro bat lortuko dugu, hau da, bi alde dituen gainazal bat (barneko aurpegia eta kanpokoa), eta ertz gisa bi “zirkunferentzia” disjuntu dituena.

VI. La banda de Moebius no es orientable

Si se toma una tira de papel y se pegan los extremos como muestra la figura se obtiene un cilindro, es decir, una superficie que tiene dos lados (la cara interior y la exterior) y dos “circunferencias” disjuntas como bordes.



Bi muturrak itsatsi baino lehen, muturretako bat 180º biratzen badugu , Moebius-en banda lortuko dugu. Ertz bakarra duena (bere luzera zilindroaren ertzak osatzen duten bi zirkunferentzien neurriaren batura izango dena), eta aurpegi bakar duena.

Si antes de pegar los extremos se gira uno de ellos 180 grados, el objeto que se obtiene es una banda de Moebius, que posee un único borde (cuya longitud es la suma de la medida de las dos circunferencias que forman el borde del cilindro) y una única cara.




Izan ere, nahikoa da arkatz markatzaile bat hartzea eta bide osoa markatzea gainazalean zehar jatorriko puntura heldu arte; orduan, ikusiko dugu Moebius-en banda OSOA pasa dugula, objektuaren “balizko” bi aurpegiak markatuta baitaude; beraz, objektuak alde bakar bat dauka. Objektu honen ertza beste arkatz markatzaile batekin (edo berarekin) pasatzen badugu, jatorrizko puntura heltzean ikusiko dugu guztia koloreztatuta dagoela; beraz, Moebius-en bandak ertz bakar bat dauka.

Are gehiago, paper-xafla luze baten bi muturrak itsasten baditugu aurrez 180º-ren multiplo pare batez biratuz, zilindro bat lortuko dugu, eta, kontrako kasuan, Moebius-en banda bat. Ikasleei gertaera hau nola egiaztatu daitekeen galdetu daiteke... ertzak eta aurpegiak zenbatuz.

En efecto, basta con tomar un rotulador y marcar un camino a lo largo de la superficie hasta llegar al punto de partida; en este momento, se comprueba que se ha recorrido TODA la banda de Moebius, al estar las “supuestas” dos caras del objeto marcadas, es decir, este objeto tiene un único lado. Si se recorre con otro rotulador (o el mismo) el borde de este objeto, se observa que al regresar al punto de partida todo está coloreado, es decir, la banda de Moebius tiene un único borde.

De hecho, si se pegan los dos extremos de una tira de papel girándola previamente un múltiplo par de 180 grados, se obtiene un cilindro y una banda de Moebius en caso contrario. Preguntar a los y las estudiantes cómo puede comprobarse este hecho... contando bordes y caras.

Ikasleei horrek oso ezaguna den zerbait gogorarazten dien galde diezaiekegu. Hain zuzen ere, birziklatzearen sinboloa –Gary Andersonek 1970ean sortua– triangelu baten ertzen gainean elkar jarraitzen duten hiru gezik osatzen dute : hondakinak baliabide erabilgarri bihurtzeko prozesua irudikatzen duen objektua, Moebius-en banda bat da.

Se les puede preguntar a los y las estudiantes si les suena a algo muy conocido. El símbolo del reciclaje –creado por Gary Anderson en 1970 y que se ilustra en la página anterior– consiste precisamente en tres flechas que se persiguen sobre las aristas de un triángulo: es una banda de Moebius que representa el proceso de transformación del material de deshecho en recursos útiles.

1. jarduera: Moebius-en banda ez orientagarria da, hau da, horren gainean bidaiatzen duten elementuen noranzkoa aldatzen du: adibidez, gezi bat marrazten badugu bandaren gainean, eta horren aurpegi bakarrean zehar mugitzen bada... ikusiko dugu hasierako puntura heltzean, geziak noranzkoa aldatu duela!

Actividad 1: La banda de Möbius es no orientable, es decir, invierte el sentido de los objetos que viajan sobre ella: si se dibuja por ejemplo una flecha sobre la banda, y se mueve a lo largo de su única cara... se observará que cuando se regresa al punto de partida, ¡la flecha ha cambiado de sentido!

2. jarduera: Paperezko zilindro bat erditik mozten badugu, bi “zilindrotxo” lortuko ditugu, jatorrizko zilindroaren luzera bera izango dutenak, baina horren altueraren erdia.

Actividad 2: Al cortar por la mitad un cilindro de papel, se obtienen dos “cilindritos”, de la misma longitud que el cilindro original pero la mitad de altos que este.




Gauza bera egiten badugu Moebius-en banda batekin, zer gertatzen da? Hasteko, ikus dezakegu “banda” bakar bat lortuko dugula, jatorrizko Moebius-en bandaren luzeraren bikoitza izango duena, eta altuera erdia. Lortutakoa Moebius-en banda bat edo zilindro bat den galde dezakegu. Horri erantzuteko, arkatz markatzaile bat hartu, eta aurpegi-eta ertz-kopurua zenbatuko dugu. Bi kasuetan, emaitza bi izango da; beraz, banda normal bat da, bihurritutakoa.

Zilindro bat horren herenetik ebakiz gero, luzera bereko bi zilindro lortuko ditugu, baina altuera desberdina izango dute; batak, jatorrizko zilindroaren altueraren herenekoa, eta besteak, berriz, jatorrizkoaren bi herenetakoa. Gauza bera egiten badugu Moebius-en banda batekin, Moebius-en banda bat (jatorrizkoa bezain luzea, eta zabaleran herena) eta zilindro bat (luzeran bikoitza eta zabaleran herena) lortuko ditugu, elkarri lotuta egongo direnak.

Si se hace lo mismo con la banda de Moebius, ¿qué sucede? En primer lugar se observa que es una única “banda” doble de larga que la banda de Moebius original pero de la mitad de altura. Se puede preguntar a los estudiantes si el resultado es una banda de Moebius o un cilindro. Para responder, se toma un rotulador y se cuenta el número de caras y de bordes, que será dos en ambos casos, por lo tanto es una banda normal retorcida.

Al cortar por su tercera parte un cilindro, se obtienen dos cilindros igual de largos, de distintas alturas, exactamente un tercio y dos tercios de la original. Si se hace lo mismo con la banda de Moebius, resultan una banda de Moebius (igual de larga y un tercio de ancha) y un cilindro (el doble de largo y un tercio de ancho) y enlazados.

3. jarduera: Magian, trikimailu ugari egin daitezke Moebius-en bandarekin; Afghan Band deitzen zaie trikimailu hauei. Adibidez, hiru paper-xafla luze moztu ditzakegu, eta horien muturretan A eta B (zuria), C eta D (urdina) eta E eta F (krema) hizkiak jarri. Hirurak itsatsiko ditugu, bata bestearen gainean, baina aldeetako bat 180 gradu biratuko dugu horiek itsatsi aurretik, hau da, A F-rekin, B E-rekin eta C D-rekin itsatsiko ditugu... zer gertatzen da? Zilindro bat lortzen da, muturretako bandez osatutakoa, eta erdiko Moebius-en banda mantendu egiten da... magia al da?

Actividad 3: En Magia, existen numerosos trucos con la banda de Moebius, denominados Afghan Band. Por ejemplo, si se cortan tres tiras de papel que se marcan con las letras A y B (blanca), C y D (azul) y E y F (crema) en su extremos. Se pegan las tres una sobre otra, girando uno de los lados 180 grados antes de pegarlas, es decir, se pegan A con F, B con E y C con D... ¿qué sucede? Se obtiene un cilindro formado por las bandas de los extremos y la banda de Moebius central se conserva... ¿es magia?

4. jarduera: Hona hemen adibidez San Valentin egunean egin daitekeen trikimailu dibertigarri bat (http://threesixty360.wordpress.com/). Bi paper-xafla luze moztu behar ditugu (hobe kolore gorrikoak badira), eta bi Moebius-en banda eraikiko ditugu horiekin. Oso garrantzitsua da –bihotzak elkarri lotuta gera daitezen–, banda bat osatzerakoan erlojuaren orratzen norazkoan biratzea muturretako bat, eta bestea, berriz, kontrako noranzkoan. Bi Moebius-en bandak itsatsiko ditugu; baten topagunea bestearenarekiko perpendikularrean gelditu behar da.

Actividad 4: Un truco divertido para realizar por ejemplo el día de San Valentín (http://threesixty360.wordpress.com/): se cortan dos tiras de papel (mejor de color rojo) y se construyen con ellas dos bandas de Moebius. Es muy importante –para que los corazones queden enlazados– obtener una de las bandas girando uno de los extremos en la dirección de las agujas del reloj y la otra haciéndolo en sentido contrario. Se pegan las dos bandas de Moebius de manera que en el punto de encuentro de una quede perpendicular con respecto a la otra.

Bi bandak ebakiko ditugu luzetara, beheko irudian adierazten den eran. Azpimarratu behar da lau zatitan moztuko dela bi bandak lotzen dituen ka-

Córtense las dos bandas en sentido longitudinal, como se indica en la imagen. Hay que destacar que el cuadrado superpuesto por el que están unidas rratu gainjarria. Jarraibide guztiak bete baditugu, elkarri lotutako bi bihotz lortuko ditugu!

ambas bandas se cortará en cuatro partes. Si se ha hecho todo siguiendo las instrucciones, ¡se conseguirán dos corazones enlazados!

VII. Fraktalak eraikitzea paperarekin

Geometria fraktala matematiketako adaretako bat da, eta Benoît Mandelbrot-ek (1924-2010) sortu zuen duela 50 urte baino gutxiago. 1967an, Mandelbrot-ek "Zer luzera dauka Britainia Handiko kostak?" izeneko artikulu bat idatzi zuen. Bertan, oso irregular diren objektuentzat (mugak adibidez) luzeraren kontzeptuak zentzurik ez daukala azaldu zuen. Era berean, adierazi zuen geometria euklidestarra ez zela egokiena gure inguruko natura deskribatzeko, izan ere, berak esan bezala "Hodeiak ez dira esferak, mendiak ez dira konoak, kosta-lerroak ez dira zirkuluak eta azala ez da leuna; izpiek ere ez dute lerro zuzenean bidaiatzen".

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran matematikari handien, (Riemann, Cantor, Peano, Hilbert edo Hausdorff) eskutik sortu ziren "objektu fraktalak" objektu patologikotzat jo ziren. Mandelbrotek sortu zuen fraktal terminoa (latineko "fractus"-etik: irregularra) objektu horiei erreferentzia egiteko; eta, gainera, horien ezaugarri batzuk ezarri zituen:

- Autoantzekotasuna: objektu fraktal baten zati bat behar adina handiagotzen bada, horren erreplika bat lortzen da. Objektuaren beraren kopia txikiz osatutako elementu bat dela pentsa dezakegu.
- Dimentsio ez osoa duten irudiak (dimentsio "fraktala"): Geometria klasikoko objektuak lauak dira, zimurrik gabeak, eta, beraz, horien dimentsioa zenbaki arrunt bat da (zuzenek eta kurbek 1 dimentsioa dute, gainazalek 2 dimentsioa, etab.). Fraktalak, berriz, objektu geometriko zimurrak dira, irregulartasun handiak dituztenak, beraz horien "dimentsio fraktala" zenbaki arrazional bat da (kurba fraktalen dimentsioa 1 eta 2 artekoa da, gainazal fraktalena 2 eta 3 artekoa, eta horrela ondoz ondo).
- Prozesu geometriko iteratibo, edo analitiko, infinituen ondoren agertzen diren multzoak dira.

VII. Construcción de fractales con papel

La geometría fractal es una rama de las matemáticas creada hace menos de 50 años por Benoît Mandelbrot (1924-2010). En 1967, Mandelbrot escribió un artículo titulado "¿Cuán larga es la costa de Gran Bretaña?" donde describió que la noción de longitud carece de significado para objetos tan irregulares como las fronteras. De igual manera, defendía que la geometría euclídea no era la más correcta para la descripción de la naturaleza que nos rodea, pues "Las nubes no son esferas, las montañas no son conos, las líneas costeras no son círculos y la corteza no es suave, ni los rayos viajan en línea recta."

Los "objetos fractales" surgen a finales del siglo XIX y principios del XX, de la mano de grandes matemáticos como Riemann, Cantor, Peano, Hilbert o Hausdorff, entre otros, y se consideraban como objetos patológicos. Fue Mandelbrot quien acuñó el termino fractal (del latín "fractus": irregular) para referirse a estos objetos y además estableció ciertas propiedades que los caracterizaban:

- Autosemejanza: Si se magnifica convenientemente una parte cualquiera de un objeto fractal se obtiene una réplica del mismo. También puede pensarse como formado por copias de sí mismo a escalas más pequeñas.
- Figuras con dimensión no entera (dimensión "fractal"). Los objetos de la geometría clásica son lisos, sin rugosidad, y por lo tanto su dimensión es un número natural (las rectas y curvas tienen dimensión 1, las superficies tienen dimensión 2, etc.), mientras que los fractales son objetos geométricos rugosos, de una gran irregularidad, y su "dimensión fractal" es un número no natural (curvas fractales dimensión entre 1 y 2, superficies fractales entre 2 y 3, y así sucesivamente).
- Conjuntos que aparecen tras procesos iterativos geométricos, o analíticos, infinitos.

1. jarduera: Existitzen al da objektu fraktalik naturan?

Ikasleei naturako objektu fraktalik ezagutzen duten galde daiteke. Aipatzen dituzten guztiak sailka ditzatela fraktal autoantzekoetan eta ez-autoantzekoetan.

Actividad 1: ¿Existen objetos fractales en la naturaleza?

Pregúntese a los alumnos y alumnas si conocen objetos fractales en la naturaleza. Y que todos los que se mencionen, los clasifiquen en las categorías de fractales autosemejantes y no autosemejantes.

Naturan aurki ditzakegun fraktalen adibideak. Lehenengo lerroa, ezkerretik eskuinera: iratze-adar bat, ekaitz-tximista bat, ibai-adar bat. Bigarren lerroa ezkerretik eskuinera: nautilus baten oskolaren ebakidura, brokoli-sorta bat, romanesku-landare bat.

Ejemplos de fractales que se encuentran en la naturaleza: primera fila de izquierda a derecha: rama de un helecho, rayo de una tormenta, ramificación de un río; segunda fila de izquierda a derecha: sección de la concha de un nautilus, un ramillete de brócoli, una planta de romanescu.

2. jarduera: Lauki zentralak

Jarduera hau gauzatzeko, orri normal bat beharko dugu. Ahal bada, orriaren zabalera luzeraren bikoitza izango da.

Orria erditik tolestuko dugu, eta ondo markatuko dugu tolesdura bi noranzkoetan.

Bi ebaketa egingo ditugu tolestu dugun tokitik, bakoitza orriaren ertzetik laurden batera, jatorrizkoaren luzeraren erdira arte.

Ebaki dugun pieza kontrako muturreraino tolestu, eta ongi markatuko dugu.

Moztutako zatia barrurantz tolestuko dugu.

Prozesua errepikatuko dugu. Orain ebaketak egingo ditugu, bakoitza tolesduraren hasieratik laurden batera, eta geratzen den paperaren luzeraren erdira arte.

Ebaki dugun pieza tolestuko eta markatuko dugu, berriz ere barrurantz tolesteko.

Prozesua berriz errepikatuko dugu.

Actividad 2: Cuadrados centrales

Para la realización de esta actividad se necesita un folio cualquiera. Es preferible que las proporciones del folio sean 1 a 2, es decir, que mida el doble de ancho que de alto.

Se comienza con un folio y se dobla por la mitad, procurando marcar bien el doblez en los dos sentidos.

Se hacen dos cortes por donde se ha doblado, cada uno a ¼ del borde de la hoja, de longitud la mitad del original.

Se dobla y se marca bien la pieza que se ha recortado hasta el extremo contrario.

Se dobla y se pliega la parte recortada hacia adentro.

Se repite el proceso. Ahora se hacen los cortes, dada uno a ¼ del comienzo del pliegue y de longitud la mitad del papel que queda.

Se dobla y se marca la pieza que se ha recortado para plegarla de nuevo hacia adentro.

Se repite de nuevo el proceso.

Hiru iterazio (tolesdurak) egiterakoan zaildu egiten da eskuz egitea, tolesduraren lodiera handiagotzen doalako.

Azkenik, guztia destolestuko dugu, eta angelu zuzenak osatu; fraktal motako objektu eder bat sortu dugula ikusiko dugu.

Al realizar tres iteraciones (dobleces) comienza a ser complicado hacerlo manualmente, pues el espesor de las dobleces va aumentando mucho.

Ya por último se desdobla todo formando ángulos rectos y se puede apreciar la belleza del objeto de tipo fractal realizado.





Oharra: praktikan, ezinezkoa da hirugarren tolesdura planoa behar bezala marraztea eta ebakitzea. Hori errazteko, jarraian txantiloi bat daukagu; markatutako lerro jarraikietatik ebakiz gero, eta puntu-lerroetatik tolestuz gero, lau lauki zentraletako fraktala lortuko dugu.

Nota: en la práctica, es imposible dibujar correctamente y cortar después del tercer plegado plano. Por ello, a continuación se adjunta una plantilla mediante la cual, si se corta por las líneas continuas marcadas y se dobla por las líneas a puntos, se llega a obtener también el fractal de cuadrados centrales.



3. jarduera: Sierpinski-ren triangelua

Jarduera hau gauzatzeko, orri normal bat beharko dugu. Ahal bada, orriaren zabalera luzeraren bikoitza izango da.

Hasteko, orria tolestuko dugu.

Tolestu dugun tokitik, erdia markatuko dugu, eta paperaren luzeraren erdia ebakiko.

Ebaki dugun bi zatietako bat tolestuko dugu kontrako muturrera arte.

Bi noranzkoetan ongi markatzea komeni da, horrela nabarmen murriztuko baita orriaren bi aurpegien arteko airea, eta, beraz, baita amaierako lodiera ere.

Tolesdurari buelta emango diogu barrurantz.

Prozesua errepikatuko dugu; zati bakoitzaren erdia markatuko dugu, eta aurreko ebakiduraren erdira arte ebakiko.

Actividad 3: El triángulo de Sierpinski

Para la realización de esta actividad se necesita un folio cualquiera. Es preferible que las proporciones del folio sean 1 a 2, es decir, que mida el doble de ancho que de alto.

Se empieza con el folio y se dobla.

Se marca la mitad del lado por donde se ha doblado y se corta la mitad de la largura del papel.

Se dobla una de las dos partes que se ha cortado hasta el extremo contrario.

Es conveniente marcar bien en los dos sentidos, pues esto reduce considerablemente el aire entre las dos caras de la hoja, y por tanto el espesor final.

Se da la vuelta al pliegue hacia adentro.

Se repite el proceso, se marca la mitad de cada una de las partes y se corta hasta la mitad del corte anterior.

Orain lau zati dauzkagu. Lehenengoa eta hirugarrena tolestuko ditugu kontrako muturreraino. Eta, berriz ere, buelta emango diegu tolesdurei.

Zati horizontal bakoitzaren erdia markatuko dugu, eta luzeraren erdira arte ebaki. 1, 3, 5 eta 7 zatiak tolestuko ditugu. Azkenik, berriz ere buelta emango diegu tolesdurei.

Ahora hay 4 partes. Se dobla la primera y la tercera hasta el extremo contrario. Y se da la vuelta a los pliegues de nuevo.

Se marca la mitad de cada una de las partes horizontales y se corta la mitad de la longitud. Se doblan las partes 1, 3, 5 y 7. Finalmente se vuelve a dar la vuelta a los pliegues.





Bukatzeko, guztia destolestuko dugu, eta “Sierpinski-ren triengelua” delakoa lortuko dugu.

Oharra: praktikan, ezinezkoa da hirugarren tolesdura planoa behar bezala marraztea eta ebakitzea. Hori errazteko, jarraian txantiloi bat daukagu; markatutako lerro jarraikietatik ebakiz gero, eta puntu-lerroetatik tolestuz gero, Sierpinski-ren triangelu bat lortuko dugu.

Para acabar, se desdobla todo y se obtiene lo que se conoce como “El triángulo de Sierpinski”.

Nota: En la práctica, es imposible dibujar correctamente y cortar después del tercer plegado plano. Por ello, a continuación se adjunta una plantilla mediante la cual, si se corta por las líneas continuas marcadas y se dobla por las líneas de puntos, se obtiene un Triángulo de Sierpinski.





Begirada matematiko bat • Una mirada matemática

IMAGINARY

www.ehu.es/imaginary